

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Imanol Urbieta Beristain

*Zarautz,
Gipuzkoa
(1934-2016)*

Aurkibidea



Biografia



Zarauzko musika plazan jaio zen 1934an. Hamar anai-arrebatatik hirugarrena izanik, bera baino txikiagoak loaraztea zen bere eginkizuna, sehaskari eraginez. Esperientzia horrek eta beraien etxean piano bat egoteak betirako bideratu zuen musikarantz, zaletasun moduan lehenengo eta ogibide bihurtuz gero. 6 urterekin hasi zen musikaren kulturean barneratzen eta 8rekin bazuen pianoko irakaslea, txistua jotzen ikasia zen eta klarinetearekin hasita zegoen. Musikagilea, pedagogoa, psicomotrizista eta batez ere sortzailea. 40 urtetik gorako ibilbidean, kontaezinak dira berak sortutako haurrentzako abesti, melodia eta musika zein ikaste-metodoak, 60tik gorako diskotan plazaratuta: "Xirula mirula", "Xixupika", "Haurtxoa", "Urtxintxa", "Txanela", "Zarautzeko haur kantariak", "Amonaren kutxan", "Haur kantarien birlorak", "Axelko, otsoko eta Beleko", "Lau katu eta danbor bat", "Gabon gauean", "Bizarzuri", "Kansenia koralez koral", "Kun-kun lo lo", "Handitzen, handitzen", "Txikia izanik", "Kukuketan"... Bereak diren "Pintto" txakurrarena, betaurrekodun astoa zein 'po-po po-po' egiten duen Ranroverrena... zer umek ez ditu abestu?

Zintak

ZAR-050

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti
- **Data:** 2008-09-10
- **Iraupena:** 85 min

- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Gaston Balerdi, Izaskun
- **Emalea:** Gonzalez, Esti

ZAR-051

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti
- **Data:** 2008-09-10
- **Iraupena:** 85 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Gaston Balerdi, Izaskun
- **Emalea:** Gonzalez, Esti

Pasarteak

1. Musikarako zaletasuna ume-umetatik

- **Erref:** ZAR-050/002
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:00:55. **Bukatu:** 00:03:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Familiaren jatorriaz. Zarauzko plazan jaioa da Imanol. Jaiotetxean zegoen piano bati esker piztu zitzaion musikarekiko grina. Zortzi urte zituenerako pianoa, txistua eta klarinetea jotzen zituen.</p>

Transkripzioa

- Jaio, jaio nai baiño nere baserriyak ikusten ditut nere aitonarena eta nere amonarena. Ze aita eta ama ya kalekoak dira, baino ni txikitan euki nuan, benetan gerra re gerra re bizi nintzela harrapatu niñun gerran eta izkutatuta egon giñen, babestuta baserrietan. Herritikan urrutien zegoen baserriyan egon ginen .

- Zarautzen, baiña jaio-jaioatakoa zara?

- Zarautzen, Zarautzen, Zarautzen

- Zein lekutan?

- Plazan, Zarauzko plazan. Han zeon musika, han zeon kioskoa, han zeon herriko zentroa han zegoen ta aitona, aitonarentzat hala zen soziedade bateko, soziedade kultural baiño gehiago, ez dakit nola esplikatu, “Obreros católicos de San Pelayo” bere izena hala zan, zentrokoak giñan denok ni ere bai. Gero, aitag inportantzi gehiago hartu zuenean ba, Meltxorren semea, aita, Meltxor zan, baino, jaio hala in nintzan, zentron. Zentroan, da plazako etxe bat han dago bizirik dago, ba bigarrenko pisuan eta hirugarrena. Eta zorionez, han piano bat zegoen ta hasiera batian, bai neretzat bai nere amantzat pianoa tentaziyo fuerte bat zan. Gerrakin ba danak gelditu in zian, soziyo jarraitzen zuten, baiña aktibidadiak ez nitun ezagutu, bai, antzerkia dela eta. Baiña behintzat pianoa han zegoen. Ta aitonak ba benetan bista ona zeukan ta konturatu zan eskuak nituela, ezta? eta oso umen nintzela, sei urtekin, hasi nintzan nere musikarekin, kulturarekin, hizkuntzarekin, hizkuntza musikalarekin, solfeoa dala ta, ohitzen, ezta? Ta oso txikia nintzela, zortzi urterako ya nere pianoko maisua naukan. Txistua ikasi nuen, bandan han aurrian klarinetia jotzen nuen ta, ba ta hoixe.

2. Eskola eta musika ikasketak aldi berean

- **Erref:** ZAR-050/007
- **Iraupena:** 0:04:17. **Hasi:** 00:07:45. **Bukatu:** 00:12:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

Miserikordia bezala ezagutzen zen eskolan hasi zen arren, La Sallen egin zituen oinarrizko ikasketak. Oroitzapen onak ditu. Ona zen hainbat irakasgaietan gainera. Eskola eta musika ikasketak aldi berean egin behar izaten zituen. Bandako kide zaharrenek jartzen zioten eginkizun zelebreaz hitz egiten du.

3. Etxekoei lo eragiteko musika zuen lagun

- **Erref:** ZAR-050/009
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:13:15. **Bukatu:** 00:15:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Sei urte ingururekin, anai-arreba txikiei lokartzen laguntzea zen bere arduretako bat. Orduan ohartu zen sehaska kanten eta musikaren erritmoak duen garrantziaz.</p>

4. "Sakamantekas" eta "Amona mantalgorria"

- **Erref:** ZAR-050/016
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:23:22. **Bukatu:** 00:25:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Haurrak beldurtzeko erabiltzen ziren kondairak: "sakamantekas" eta Zarauzko kartzelan egoten zen "amona mantalgorria".

5. Haurtzaroa parroki inguruan

- **Erref:** ZAR-050/017
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:25:04. **Bukatu:** 00:28:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Haurtzaroko Zarautz nolakoa zen dakar gogora. Etxea baino hobe ezagutzen zuen parrokiatz mintzo da batez ere. Pasabide sekretuetan barrena ibiltzen zirela gogoan dauka. Eragin handia izan du bere bizitzan zehar.

6. Txalupa artean igerian

- **Erref:** ZAR-050/019
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:31:00. **Bukatu:** 00:32:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak

Laburpena:

Hondartza, itsasoa, moila inguruari "kosta"esaten zioten lehen. Gerora ikasi du hondartza hitza erabiltzen. Txalupa artean, igeri egiten nola ikasi zuen kontatzen du.

7. Itsasoarekin harreman estua izan du beti

- **Erref:** ZAR-050/020
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:32:58. **Bukatu:** 00:35:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak

Laburpena:

Garrantzia handia izan du urak bere bizitza osoan zehar. Umeak zireneko arrantza kontuak, uretako jolasak eta kanalean egin behar izaten zuten garbitasun pertsonalaz hitz egiten du. Hainbat anekdota dakar gogora.

8. Udatiarrentzat lanean

- **Erref:** ZAR-050/021
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:35:21. **Bukatu:** 00:38:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Oporrak

Laburpena:

Udatiarrak etortzen zirenean Zarauzko bizimodua aldatu egiten zen erabat. Umeek lan desberdinak egin zitzaizketen, besteak beste, maletak eramaten edo golf makilekin "caddy" lanetan aritzen zirela kontatzen du. Berari ere, udatiarren etxeetan musika bandarekin kontzertuak ematea suertatu izan zaio.

9. Oholtzatik ikusi behar izaten zituen gazteak dantzan

- **Erref:** ZAR-050/022
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:38:15. **Bukatu:** 00:41:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Hamabostean behin, jai arratsaldeetan, kontzertua eskaintzen zuen musika bandak. Musika jotzen egon behar izateak ez zion dantzarako aukerarik ematen. Hala ere, musika jotzen zuen bitartean gazteen dantzarako jarreraren lekuko zela kontatzen du.

10. "Nahia" dantzalekuko fundatzaileetako bat

- **Erref:** ZAR-050/023
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:41:11. **Bukatu:** 00:42:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Gipuzkoako lehenengotariko dantzaleku baten fundatzaile izan zen Imanol. "Nahia" zuen izena eta Zarautzen bertan zegoen kokatua. Bertatik pertsona oso ezagunak pasa direla kontatzen du. Hala ere, musika irakasle izanik gaizki ikusia zegoenez, utzi egin behar izan zuen dantzalekua gerora.

11. Zarauzko Euskal Jaia

- **Erref:** ZAR-050/024
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:42:49. **Bukatu:** 00:44:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Abuztuak 15, Ama Birjina egunez, ospatzen ziren jai nagusiak Zarautzen. Irailaren 9ko "Fiesta vasca" edo Euskal jaiak ere indar handia izan duela kontatzen du. Musika, abesbatzak, antzerkia eta horrelako ekitaldi guztiak antolatzeke eta aurrera eramateko ardura hartzen zuen Imanolek. Euren zor diegu ekitaldiz beteriko aste beteko jaia.</p>

12. "Xirula mirula" musika eskola

- **Erref:** ZAR-050/027
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:47:46. **Bukatu:** 00:50:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Musikarekin erlazionatutako goi mailako ikasketak burutu zituen. Herria alaitu eta jai giroa sortzeko musikak eman dion aparteko aukeraz mintzo da. Zarauzko "Xirula mirula" musika eskolaren sortzaile ere izan zen. Herriko 500 haur pasa ziren bertatik. Oroitzapen politak dakartzkio gogora.

13. "Oleskariak" abesbatzako zuzendaria

- **Erref:** ZAR-050/029
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:51:38. **Bukatu:** 00:52:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

"Oleskariak" abesbatzako zuzendari izan zen (argazkia ikusten da). Arrakasta handia izan zutela kontatzen du eta baita Donostiako Easo abesbatzaren zuzendari izateko eskaintzari nola uko egin zion ere.

14. Euskararen alde lanean

- **Erref:** ZAR-050/030

- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:52:50. **Bukatu:** 00:53:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Euskararen alde lan egiteko grina sentitu izan du hasiera hasieratik. Berak sortutako kantuak erabili ditu baliabide gisa,

15. Irakaskuntza eta sormenerako dohain berezia

- **Erref:** ZAR-050/038
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 01:10:16. **Bukatu:** 01:12:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Bizikletaren tinbrea erabiliz tonu eta erritmo desberdinak bereizten irakatsi zion lagun bati zortzi urte inguru zituztela. Erakusteko erraztasuna izan duela aitortzen du.

16. Ezinezkoa litzaioke kanta bakarra aukeratzea

- **Erref:** ZAR-050/043
- **Iraupena:** 0:05:08. **Hasi:** 01:18:15. **Bukatu:** 01:23:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Luis Iriondori ("Kontrapunto" taldekoa) esker lortu zuen Bartzelonako disko-etxe batek bere lehen lana argitaratzea. Egindako kanta guztien artean ezinezkoa litzaioke bakarra aukeratzea. "Pintto pintto" kantaren inguruko anekdota.

17. Musika edozein irakasgairako baliagarria

- **Erref:** ZAR-051/002
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:01:14. **Bukatu:** 00:03:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Edozein ikasgai eta jolas betetzen zituen musikaz Imanolek irakaskuntzan jardun zuen bitartean. Geografia irakasteko sortutako kanta abesten du adibide gisa.

18. "Mak Mikel" kantaren balioaz

- **Erref:** ZAR-051/003
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:03:14. **Bukatu:** 00:04:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

Laburpena:

"Mak Mikel" abestia nondik nora sortu zuen azaltzen du. Kanta haren bitartez, bestelako balio batzuk transmititu zizkien haurrei.

19. "Erre errekin errekin"

- **Erref:** ZAR-051/004
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:04:36. **Bukatu:** 00:06:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

Laburpena:

Bizitzan zehar gertatzen diren jai, ospakizun edo gertakari berezi guztiek daukate kantaren bat lotuta. "Erre errekin errekin" kanta jartzen du elkarriketatzailerak adibide gisa.

20. Kanta bat sortzeko prozesuaz

- **Erref:** ZAR-051/009
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:14:42. **Bukatu:** 00:17:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Kanta eta melodiak burura etorri egiten zaizkiola kontatzen du. Hasiera batean, Lizardi bezalako olerkari zaharren olerkiei jartzen zien musika. Berak sortutako melodiei letrak jartzen hasiko da gero.

21. "Txorien neguko kanta" olerkia

- **Erref:** ZAR-051/010
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:17:02. **Bukatu:** 00:19:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Nahiz eta bere burua ez duen olerkaritzat hartzen, olerki asko idatzi izan dituela aitortzen du. Neguari buruzko olerki bat musikatzen du. Hurrei ezagunak zaizkien esperientziak identifika erraz bihurtzen ditu musika eta letren laguntzaz.

22. Sehaska kanten erritmoa

- **Erref:** ZAR-051/013
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:27:53. **Bukatu:** 00:31:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

Laburpena:

Umetan, anai-arreba txikiagoak loaraztea zen bere eginbeharretako bat. Hauek lokartu ezean, ez zuen kalera irteterik izaten. Orduan jabetu zen musikaren eta erritmo desberdinen garrantziaz. "Haurtxo polita sehaskan dago" kantatzen du adibide gisa.

23. Frontetik ekartzen zituzten jaioberriak

- **Erref:** ZAR-051/015
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:32:34. **Bukatu:** 00:33:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Hamar senidetan hirugarrena zen Imanol. Lau urtera bitartean baserrian bizi izan zen. Haurrak jaiotzen zirenean, frontetik ekartzen zituztela kontatzen zieten.

24. Euskararen egoera gerraostean

- **Erref:** ZAR-051/017
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:34:21. **Bukatu:** 00:37:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Euskaraz jarduteagatik etxean ez zuen sekula arazorik izan. Gobernadoreari eskua eman behar izan zioneko anekdota kontatzen du. Iruñan ospatu zen lehen aberri egunera ere joan zen lagun batzuekin. Kartzelatu egin zituztela kontatzen du.

25. Kixotea lehen aldiz irakurri zuenekoa

- **Erref:** ZAR-051/030

- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 01:12:32. **Bukatu:** 01:14:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Baserritar asko zegoen apaizgaitegietan. Erdaraz ikastera joaten ziren gehienak. Imanolek bazekien gazteleraz eta Kixotea bezalako lan handiak irakurriak zituen ordurako. Maisulan honi buruzko anekdota kontatzen du

26. Emakumeenganako begirunea

- **Erref:** ZAR-051/033
- **Iraupena:** 0:05:41. **Hasi:** 01:18:40. **Bukatu:** 01:24:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Gaztetan erretzen zituzten zigarroak nola egiten zituzten kontatzen du. Sexu harremanei dagokienean, garai hartarako ohikoa ez zen askatasun bat bizi izan zuen. Bekatu kontuek ez zuten gehiegi arduratu izan. Emakumearen irudia hainbat zentzutan izan da oso garrantzitsua bere bizitza osoan zehar.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-01

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com